

## "Hawaii" 2017ko Gipuzkoako Merkataritza Enpresa

- *Gipuzkoako Bazkondeak **Donostiako** "Hawaii" 2017ko Gipuzkoako Merkataritza Enpresa izendatu du bere jardueragatik, kudeaketa ereduagatik, merkatuaren eskaera berriei etengabe egokitzeagatik eta berrikuntzagatik.*
- *"10 bitxiak" izendapenaren barruan Gipuzkoako hamar merkataritza enpresa esanguratsuenak saritu dira. Eskualde bakoitzeko merkatariek aukeratu dituzte hamar merkataritza hauek.*
- *Sari banaketa ekitaldia gaur gauean burutu da Gipuzkoako Bazkundeko egoitzan eta bertan Denis Itxaso, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kiroletako Diputatua eta Isabel Muela, Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Merkataritza Sailburuordea izan dira. Ekitaldia Euskaltelek, Iberdrolak eta Kutxabankek babestu dute.*

**Donostia - 2017ko azaroaren 17a** - Donostiako **Hawaii** enpresa komertzialak 2017ko Gipuzkoako Merkataritza Enpresa saria eskuratu du. Saria Gipuzkoako Bazkondeak banatu dituen Gipuzkoar Merkataritza Enpresa Sarien XXV. edizioan jaso du, bertan Denis Itxaso, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kiroletako Diputatua eta Isabel Muela, Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Merkataritza Sailburuordea izan dira. Sari banaketa ekitaldia **Euskaltelek**, **Iberdrolak** eta **Kutxabankek** babestu dute eta Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Bulego Teknikoen laguntza izan du.

Hawaiik 2017ko Gipuzkoako merkataritza enpresa saria jaso du bere jardueragatik, kudeaketa ereduagatik, merkatuaren eskaera berriei etengabe egokitzeagatik eta berrikuntzagatik.

Hawaii duela 37 urte sortu zuen Tito Moro surfista eta windsurfistak. Surfeko eta windsurfeko lehen oholak hondartzan saltzen hasi zen bertako jendeak ez zuelako oholen materialak eskuratzeko aukera eta bera izan zen ohola hauek beste herrialdeetatik ekartzen hasi zena. Horrela, 1980an, surfeko lehen denda irekitzea erabaki zuen Donostiako Artzai Ona plazan.

Denda martxan jarri ondoren, 1982an, Titok estanzazio eta jantzigintza enpresa bat sortzea erabakitzen du: Stuff. Horrela enpresa berean diseinatutako eta ekoiztutako Hawaiian Waves marka kaleratzen du. 1989an lau solairu dituen lokal handiago batera aldatzen dira eta surf munduan eta hirian bertan erreferente bihurtzen dira surfeko industriaren marka gama zabalarengatik, zerbitzu espezializatuarengatik, eta arropen kalitatea eta berrikuntzagatik. 2013an beste denda bat irekitzen dute Donostian, diziplina anitzeko surf gune bat, surfeko marka hoberenak eta eguneratuenak artea eta argazkigintzarekin partekatzen dituelarik: Concept Store bat. 2016ean Tito eta bere taldeak, 4 solairuko denda bat gehiago irekitzen dute, oraingo honetan Zurriolako hondartza parean, pausu garrantzitsu bat emanez negozioan azken denda honetan ez delako surfarekin zer ikusita duen kirol materiala eta moda bakarrik saltzen, surfeatzeko beharrezkoa den material guztia alokatzeko aukera ematen da.

Gaur egun, Donostian kokatuta dauden 3 dendek osatzen dute Hawaii eta berezko hiru marka ere ditu: Sanse, Stronger y HAWAII. Lan taldea lau hizkuntzatan, euskaraz, ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz, erantzuten duten 14 pertsona espezializatuek osatzen dute. Euren artean Titoren semea dago, orain lau urte sartu zen lan taldean, enpresari ikuspegi gazte bat emanaz eta enpresaren jarraipena ziurtatuz.

Hawaii, Europako surf munduan erreferente bat bihurtu da, lehen Hawaiiiko arduradunak baitziren kanpora ateratzen zirenak besteengandik ikastera eta orain EEBBetako eta Australiako establezimenduetako arduradunak dira hona etortzen direnak Hawaiko modelu eredua eta beste inguruetan egiten dituzten egokigarritasunak azterzera.

### **Gipuzkoako hamar merkataritza enpresa nabarmenenak**

Gipuzkoako Bazkondeak Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Bulego Teknikoekin egin du lan, beste behin ere, sariak Gipuzkoa osora gerturatzeko helburuarekin. Sariak partehartzaileagoak eta esanguratsuagoak bihurtuz. **Gipuzkoako sariak.**

Helburu hau argi eta garbi islatzen da "10 bitxiak" sarian, eskualde bereko merkatariek direlako Gipuzkoako 10 merkataritza enpresa nabarmenenak aukeratu dituztenak, lurraldeko merkataritza bitxien mapa sortuz.

Aurten, iaz egin zen moduan, saria Gipuzkoako merkataritzako sektore guztietara zabaldu da, eta ondorengo hauek dira Gipuzkoako merkatariek saritu dituzten dendak: Deba Garaia eskualdekoek **Bergarako Mujika Burdindegia** saritu dute. Urola Garaikoek **Legazpiko Coro Paternain** ileapaindegia. Debarrena eskualdekoek **Eibargo Carnicería Otegui** eta Bidasoaldekoek **Irungo Nanas Boutique Infantil** saritu dute, **Donostian Kefren** dekorazio denda saritu duten bitartean. Donostialdean berriz, **Hernaniko Hiru** haur arropa denda saritu dute eta Goierri aldean **Ordiziako mARTa** eskulan, jostailu eta opari denda. Oarsoaldea eskualdean **Oiartungo Zabaleku Informatika** saritu dute eta Tolosaldea eskualdekoek **Tolosako Báb Singular Store**. Urola eskualdekoek, azkenik, **Azpeitiako Xaxarki** estetika saritu dute.

Eskualdeko merkataritzaren ezaugarri diren balore, irudi eta prestigioa adierazten dutelako saritu dituzte merkataria hauek guztiak "10 bitxiak" sariarekin.

**Informazio gehiago nahi izanez gero:**

Irune Bengoetxea

[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)

943 000 310 / 688884347